

BAZEN GARAIA ZORRA KITATZEKO!

2020ko azaroaren 24an bildu zen 2014an sinatutako Akordio Transakzionalaren Batzorde Paritarioa, Auzitegi Gorenaren aurrean ebatzitako gatazka konpontzeko eta hitzarmenaren aplikazioa berreskuratzeko.

Ildo horretan, 2013ko uztailaren 8tik 2016ko urtarrilaren 1ean hitzarmenean jasotako soldata-taulak osorik aplikatu arte metatutako soldata-galerak konpentsatzeko azken epea ezarri da.

Batzordeak erabaki du 2020ko abenduaren 31 izango dela Lanbide Heziketako ikasgelen % 20 baino gehiago dituzten ikastetxeetako langileei zor zaien guztia ordaintzeko azken eguna.

Gainerako zentro gehienek dagoeneko ordaindu dute zor hori guztia, baina, kasuren batean hala ez bada, Batzordeak adostu du 2020ko abenduaren 31 zorretik geratzen den apurra ordaintzeko azken eguna izatea ere, Batzordeak 2020rako kalkulaturako finantzaketa-gehiegizkoak erabiliz.

STEILASek 2016an ez zuen sinatu urte horietan guztietan zorraren ordainketa mailakatua arautu duten soldata-galerak konpentsatzeko prozedura. Oso argi genuen prozedura horrekin asko atzeratuko zela Lanbide Heziketako ikastetxeetako zorraren ordainketa. Denborak arrazoia eman digu.

Ikastetxe gehienetan zor hori aurretik ordainduta dago. Nolanahi ere, zure ikastetxean oraindik ordaindu ez badute edo bere garaian zure kitapenean sartu ez bazuten, lehenago adierazitako epeetan ordaindu beharko dizute. Ez izan zalantzarik STEILASekin harremanetan jartzeko, argibideren bat behar baduzu.

Irakaskuntzan, STEILAS